

OSOKO BILKURA 2024-02-29

Organoa: Udal Plenoa
Izaera: Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2024-02-29
Ordua: Hasiera 18:35etan.
Bukaera 19:15etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
 - .- Lierni Altube Moyua andrea (EH Bildu)
 - .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
 - .- Iñigo Ruiz Barron jauna (EH Bildu)
 - .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
 - .- Saioa Arkonada Perez andrea (EH Bildu)
 - .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
 - .- Asier Lauzurika Arrondo jauna (EH Bildu)
 - .- Ekhiñe Mendi Altube andrea (EH Bildu)
 - .- Idoia Aierbe Lizarralde andrea (EH Bildu)
-
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
 - .- Xabier Mugarza Ayastui jauna (EAJ-PNV)
 - .- Itziar Alonso Aguirre andrea (EAJ-PNV)
 - .- Eva Maria Gayubo Cazorla andrea (EAJ-PNV)
 - .- Claudia Angelica Valdivieso Ascui andrea (EAJ-PNV)
 - .- Angel Maria Biain Zubiaguirre (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna
Kontuhartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

AZTERGAIAK

2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko lokaleko etxebizitza behin-betiko Udal etxebizitza tasatutzat kalifikatzea eta lehenengo okupaziorako baimena onartzea, hirigintza informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 12an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: “Kale Zaharra-Otadui Zuhaztia” eremuko irisgarritasun plana onartzea, hirigintza informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 12an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 6an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko kultur eragile zein norbanakoei gauzatzen dituzten proiektuak, programak eta sormen lanak diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2024ko dirulaguntzen deialdia onartzea, kultura informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 6an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzaren alegazioak onartzea eta berriz hasierako onarpena ematea, zerbitzuak informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 6an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023. urterako 0,5eko soldata gehigarria igotzea onartzea, atzeraeraginez, Oñatiko Udaleko zerbitzuko enplegatu publikoei, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 19an.

8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Pertsonaleko teknikari (A2) baten aldi baterako programa beste urte batez luzatzea onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 19an.
9. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Orkatzategiko herri mendian ehiza postuak jartzeko baimenaren inguruan GFaren erantzunaren berri ematea, ingurumen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 14an.
10. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuen udal ordenantzari hasierako onarpena ematea, ongizate zerbitzu informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.
11. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: SURADESA Oñatiko Udalaren bitarteko propio izatea berariaz aitortzea, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.
12. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko diru-laguntzen oinarriak eta 2024ko dirulaguntzen deialdia onartzea, berdintasun informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 13an.
13. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Berezaoko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.
14. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Lezesarriko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.
15. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Araozko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.
16. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko dirulaguntza deialdia onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.
17. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Ingurumena eta Landa Garapen sailak kudeatzen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.
18. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2024ko Auzotasun programa garatzeko hitzarmen markoa eta diru-laguntza izendunak onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.
19. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Kirol elkarte eta taldeei diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2024ko diru-laguntzen deialdia onartzea, kirol informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 21ean.
20. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta EHU artean lankidetzeta-hitzarmenaren luzapena onartzea, turismo informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 21ean.
21. Hala badagokio, presako gaiak.
22. EAJ-PNV udal taldearen mozioa, Oñatiko ondarea babestekoari buruzkoa.
23. EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: 2024ko martxoaren 8ko eguna dela eta.
24. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
25. 2024ko urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 68 zenbakitik 274 zenbakira.
26. 2024ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (1., 2., 3., 4. eta 5. saioak).
27. Galderak eta eskaerak.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

Behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, alkate-udalburuak bilkura ireki dela adierazi du, eta gainerrenda osatzen duten gaiak aztertu dira. Gai horiek osoko bilkura honi dagozkio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. Artikuluaren arabera.

BILERA:

1.- Onartzea, hala badagokio, 2024-01-25eko ohiko osoko bilkuraren akta, (1.2024).

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2024ko urtarrilaren 25eko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko lokaleko etxebizitza behin-betiko Udal etxebizitza tasatuztat kalifikatzea eta lehenengo okupaziorako baimena onartzea, hirigintza informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 12an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko lokaleko etxebizitza behin-betiko Udal etxebizitza tasatuztat kalifikatzea eta lehenengo okupaziorako baimena onartzea.

Iñaki Landa Azkoaga jaunak (Hirigintza Batzordeko idazkariak eta Udal arkitektoak) 2024ko otsailaren 12an egindako hirigintza batzordearen aktak honela diola ziurtatzen du:

“San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko etxebizitzaren lehenengo okupaziorako baimena (6086)(6400)(2022/75 esp)

San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko lokalean etxebizitza egokitzeko baimena ematea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2023ko urtarrilaren 26ko bilkuran, behin-behineko udal etxebizitza tasatuztat kalifikatuz.

Lanak amaituta, San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko etxebizitzaren lehenengo okupaziorako baimena eskatu du [REDACTED], [REDACTED] izenean, eta dokumentu hauek aurkeztu ditu:

- *Obren Amaierako ziurtagiria*
- *Argazkiak*
- *Lanen likidazioa*
- *Ezarritako instalazioei buruzko Industriaren baimenak*

Zerbitzu teknikoek tokia ikuskatu ondoren, lanak onartutako proiektuaren arabera egin direla informatu dute.

Hori gogoan izanda honako erabakiak har ditzan proposatzen dio Batzordeak Udal Plenoari:

- 1.- *San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko lokalean Zurutuza jaunak prestatu duen etxebizitza behin-betiko Udal etxebizitza tasatuztat kalifikatzea. Etxebizitzen gehiengo salmenta prezioa, Babes Ofizialeko etxebizitzaren modulua (1.808,53 €/m2 erabilgarriko) bider 2,3 izango da. Obra Berriaren eskritura aurkeztu beharko du, Oñatiko Udalak etxebizitza lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko duen eskubidea adierazten duena.*
- 2.- *Zurutuza jaunari, San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko lokalean prestatutako etxebizitzari lehenengo okupaziorako baimena ematea.”*

Oñatiko Udal etxebizitza tasatua arautzeko ordenantza (GAO 96. Zenbakian argitaratua, 2007ko maiatzaren 17koa) nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

2. artikulua.- Udal etxebizitza tasatuaren kontzeptua

“Oñatiko udalerrian, udal etxebizitza tasatuztat hartuko dira, saltzeko edo alokatzeko prezioa mugatuta dutenez eta ordenantza hauetan ezarritako gainerako betekizunak betetzen dituztenez, Udalbatzak halakotzat jotzen dituen etxebizitzak. Udal etxebizitza tasatuen izaera etxebizitza bakoitzari atxikitako garajeetara eta trastelekuetara ere hedatzen da.”

10. artikulua.- Kalifikazioa

“Bai erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioa, bai erregimen bereziko kalifikazioa Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenaren bidez ezarriko dira, sustatzaileak eskatuta.” Hala ere, gaztelerazko testuan osoko bilkurari dagokiola adierazten da.

11. artikulua.- Udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioaren ondorioak.

“Legeak xedatutakoaren arabera, udal etxebizitza tasatu gisa kalifikatutakoak, garaje eta trasteleku atxikiak barne, etxebizitza babestuztat kalifikatuko dira behin betiko. Ondorioz, behin betiko egongo dira lotuta eskualdatzeko gehieneko prezioari (ordenantza honetan zehazten da), eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideei

(lehenik eta behin, Udalaren edo administrazio jardulearen alde, eta, nolahi ere, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren alde, subsidiarioki).

Bizien artean bigarren ez edo aldi gehiagotan eskualdatutako udal etxebizitza tasatuen gehienezko prezioa hau izango da: Kalifikazioan jartzen den indizearen arabera. Kontuan hartzen da, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzentzat indarrean dagoen gehienezko prezioa (transmisioa egiten denean indarrean dagoena).”

12. artikulua.- Lehenetsun erostea eta atzera eskuratzea.

“Udal etxebizitza tasatuen titularrek, edozein dela ere haien erregimena, Udalari edo administrazio jarduleari eta autonomia erkidegoko Administrazio orokorrari -lehenetsun erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen titular subsidiarioa den aldetik- jakinarazi beharko die besterentzeko erabakia. Lehenetsun erosteko eskubidea gauzatu ahal izan dadin, honako hauek ere adierazi beharko ditu: Aurreikusitako prezioa eta ordainketa modua, aurreikusitako eskualdatzearen gainerako oinarriko baldintzak, eta jakinarazpenak jasotzeko helbidea. Eskubide hori gauzatu ahal izango da bi hilabeteko epean, jakinarazpena Udalaren edo administrazio jardulearen erregistroan eta autonomia erkidegoko Administrazio orokorraren erregistroan sartu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurreko paragrafoan adierazitako epean ez bada lehenetsun erosteko eskubidea gauzatzeari buruzko berariazko ebazpenik jakinarazi, aurreikusitako besterentzea libreki gauzatu ahal izango da.

Artikulu honetan eskatutako jakinarazpena ez bada egin, legez nahitaezkoa den artikulu horretako edukiren bat ez bada adierazi, edo eskualdaketarengatik ordaindutako diru kopurua txikiagoa bada edo baldintzak kostu bide gutxiagokoak badira dagokion administrazioari jakinarazitakoak baino, Administrazio horrek atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du bi hilabeteko epean, besterentzearen ezaqutza osoa izan eta hurrengo egunetik hasita.”

13. artikulua.- Kontratuen oniritzia.

“Udal etxebizitza tasatuak lagatzeko kontratu guztiek, erabateko jabetzakoak, lurrazaleko jabetzakoak direnek zein alokairuan daudenek, udal administrazioaren oniritzia jaso beharko dute. Oniritzirik gabe, ezingo dira Jabetza Erregistroan sartu.”

18. artikulua.- Udal etxebizitza tasatuak bizilekutzat hartzeko betebeharra.

“Salerosketa edo errentamendu kontratua egiteko eskriturak sinatutakoan, bi hilabeteko epean egin behar da etxebizitza horretan trasladoa eta erroldatzea. Hori egiten ez bada, Udalak edo subsidiarioki Eusko Jaurlaritzak, lehenetsun erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea izango du, zigorra ezarri gainera. Etxebizitzaren eta honi erantsitako eskrituratze balioaren %30a hainbat izango da isuna, atzeratzen den hilabete bakoitzeko.”

4

Azaldutakoagatik, hirigintza batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko lekuan [REDACTED] prestatu duen etxebizitza behin-betiko Udal etxebizitza tasatutzat kalifikatzea. Etxebizitzen gehiengo salmenta prezioa, Babes Ofizialeko etxebizitzaren modulua (1.808,53 €/m² erabilgarriko) bider 2,3 izango da. Obra Berriaren eskritura aurkeztu beharko du, Oñatiko Udalak etxebizitza lehenetsun erosteko eta atzera eskuratzeko duen eskubidea adierazten duena.

Bigarrena.- [REDACTED], San Lorentzo auzoa 18 zenbakiko beheko oineko lekuan prestatutako etxebizitzari lehenengo okupaziorako baimena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta hirigintza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: “Kale Zaharra-Otadui Zuhaitzia” eremuko irisgarritasun plana onartzea, hirigintza informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 12an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: “Kale Zaharra-Otadui Zuhaitzia” eremuko irisgarritasun plana onartzea.

Iñaki Landa Azkoaga jaunak (Hirigintza Batzordeko idazkariak eta Udal arkitektoak) 2024ko otsailaren 12an egindako hirigintza batzordearen aktak honela diola ziurtatzen du:

“Kale Zaharra-Otadui Zuhaitzia” eremuko irisgarritasun plana

2002. urtean idatzitako “Oñatiko irisgarritasun plana”, eta, ondoren, 2019. urtean, “Oñatiko irisgarritasun planaren eguneratzea”, Oñatiko udalerrian mugikortasun murriztua duten pertsonentzako oinezkoentzako ibilbideak, oinezkoentzako pasabideak eta aparkatzeko gordetako plazak aztertu ziren.

Aurretik Errekalde, San Lorentzo edota Olakua auzoetan egin den bezala, orain Kale Zaharra-Otadui Zuhaztia izenarekin mugatu den eremuan, beharrezkoa ikusi da indarrean dagoen Irisgarritasun Planak oro har eskaintzen duena baino ikuspegi xehatu zehatzagoa izatea, alderdi teknikoari zein ekonomiari dagokionez, egungo egoeraren eta irisgarritasunaren eta hiriguneak hobetzearen inguruan sustatu beharko liratekeen esku-hartze zehatzen irismenari dagokionez.

Hori dela eta, Kale Zaharra, Lizaur kalea, Aita Madina, Otadui Zuhaztia hartuko lukeen eremurako irisgarritasun-azterketa espezifikoa bat egitea erabaki zen. Azterlan horren bidez, hiri-espazioen irisgarritasunari eta hobekuntzari buruz lortu nahi diren helburuak lortzeko beharrezkoak diren esku-hartzeen ikuspegi zehatzagoa lortu ahal izango da eta horien gauzatzea faseka planifikatu, modu bideragari eta errealistan, une bakoitzeko aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera.

Horrela, “Kale Zaharra-Otadui Zuhaztia” eremuko irisgarritasunaren eta hiri-espazioen hobekuntzaren azterketaren idazketa esleitu zion Tokiko Gobernu Batzarrak A2B Arquitectos enpresari, 2023ko otsailaren 16an.

Eskatutako lana aurkeztu zuen enpresak, 2023ko irailaren 11ko Hirigintza Batzordean aurkeztutakoa, hain zuzen ere.

Proposamen honek aipatzen duen “Kale Zaharra-Otadui Zuhaztia” eremuko hiri-espazioen irisgarritasunari eta hobekuntzari buruzko azterlanak” funtsean hiru dokumentu ditu:

- Irisgarritasunari buruzko azterketa teknikoa.
- Irisgarritasunaren Azterketa Teknikoan jasotako irisgarritasun-irtenbideen proposamen grafikoa.
- Oztopoak kentzeko plana.

Bestalde, eremua 9 fasetan sailkatzen da eta bakoitzaren aurrekontu zehatza jaso da.

Gaia aztertu ondoren, “Kale Zaharra-Otadui Zuhaztia” eremuko irisgarritasun Plana onartzea proposatu du Batzordeak.”

5

Azaldutakoagatik, hirigintza batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- “Kale Zaharra-Otadui Zuhaztia” eremuko irisgarritasun plana onartzea.

Bigarrena.- Erabaki honi dagokion publizitatea ematea.

Gaia aztertuta, eta hirigintza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 6an.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak.

2024ko otsailaren 6an egindako ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, ogasun batzordeko idazkariak eta kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

“3.- Interes bereziko obrak

Errenta eta zerga-bilketa teknikariak honako txostena egin du:

“Espedientea izapidetu ondoren, sinatzen duen instruktoarak ebazpen-proposamen hau egiten du, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88.7 artikuluan eta Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea hainbat eskatzaileen obrak.

Udaleko KONTUHARTZAIETZA teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.:..... 2024HOIB0001
 Interesduna:..... OÑATIKO UDALA
 Gaia..... Udal interes edo erabilera bereziko izendatzea hainbat obra
 Sarrera erregistroa: 0000/000000

Hainbat herritarrek hasitako prozedurak aztertu dira.

Gertakariak:

Lehenengoa.- Hainbat herritar eta erakundek eskatu dituzte beren eraikinetako obra baimenak Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.- Udal Zerga Ordenantzak EIOZ hobarien 3. puntuari zera dio:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historikoartistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

Proposamena:

Lehenengoa.- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak eta adierazten diren hobaria aplikatu daitezela.

IZENA	NAN	HELBIDEA	Espedientea	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBRIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0171	2023-5931	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0173	2023-5971	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0174	2023-6102	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0173	2023-6134	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0181	2023-6626	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2024OTXI0006	2024-524	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0005	2024-519	Leihoak	25%

Ogasun batzordeak, aho batez, aldeko irizpena ematen du.“

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

IZENA	NAN	HELBIDEA	Espedientea	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0171	2023-5931	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0173	2023-5971	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0174	2023-6102	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0173	2023-6134	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0181	2023-6626	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2024OTXI0006	2024-524	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0005	2024-519	Leihoak	25%

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta ogasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko kultur eragile zein norbanakoek gauzatzen dituzten proiektuak, programak eta sormen lanak diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2024ko dirulaguntzen deialdia onartzea, kultura informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 6an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñatiko kultur eragile zein norbanakoek gauzatzen dituzten proiektuak, programak eta sormen lanak diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2024ko dirulaguntzen deialdia onartzea.

2024ko otsailaren 6an egindako kultura batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, kultura batzordeko idazkariak eta zuzendariak (German Meabesbasterretxea Arregi jaunak), ziurtatzen duenez.

“Kultur programa eta sormen dirulaguntzak 2024

Udaleko KULTURA zuzendaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.:.....	2024ZDKO0005
Espedientearen helbidea:.	OÑATI
Prozedura:	Udalak emandako diru-laguntzak (konpetentziaz)

AURREKARIAK:

2024ko otsailak 6, asteartean, egindako Kultura batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo gai proposamenak, Kultura unitateko zuzendariak bere aktan jasotzen duenez:

Gaia: Oñatiko kultur eragile zein norbanakoek gauzatzen dituzten programen eta sormen lanen diruzlaguntzak, norgehiagoka arau bidez banatzeko, oinarri arautzaileetan gauzaturiko beharrezko egokitzapenak eta 2024ko dirulaguntzen deialdia onartzea.

“1. Oñatiko kultura Departamenduak kudeatzen dituen programen kontura emango diren dirulaguntzen oinarretan gauzaturiko hainbat aldaketa eta 2024ko dirulaguntza deialdia onartzea.

Teknikariak azaldu du :

1. *Batetik, onartzea 2024. urteko dirulaguntzen deialdia.*

2023-2026ko Dirulaguntzen Plan estrategikoak, kultura politikak sustatzeko dagozkion dirulaguntza lerroak jasotzen ditu. Hau hórrela, 2024. urteari dagokion deialdia egitea proposatzen du Kultura Batzordeak, Ogasun Batzordearen irizpideekin bat etorriz:

.-Onuradunak.

Irabazi-asmorik gabeko Kultur arloko Oñatiko elkarteak, kultur izaerako gizarte elkarteak eta norbanakoak.

.-Xedea.

2024an hainbat kultur proiektu, programa eta jarduera sustatu eta burutzea.

.-Norgehiagoka Arautegiko oinarriak, honako dirulaguntza lerro zehatzak hartzen ditu bere baitan:

- A lerroa: Kultur proiektuak eta programak garatzeko dirulaguntzak.
- B lerroa: Kultur sormen lanak gauzatzeko dirulaguntzak.

.- Arautegiko diru-hornidura:

1. Baimentzea laurogehita hamalau mila eta seiehun euroko (94.600€) gastua deialdiari aurre egiteko, honako partida honen kargura:
2. Udal aurrekontuen 1.0800.480.334.00.01.2024 (355) ” diru ataletik eta bere lotespen mailaren kontura eta ondorengo eran:
 - . A lerroa: Kultur programak eta proiektuak finantzatzeko, guztira hirurogeita hamazazpi mila euro (77.000€).
 - . B lerroa: Kultur sormen lanak finantzatzeko, guztira hamazazpi mila eta seiehun euro (17.600€).
 - . Guztira kreditua: 94.600 euro.

Jasota dago espedientean kreditu nahikoa eta egokia dagoela.

.-Eskabideak aurkezteko epea eta tokia:

Onartzea 2024ko deialdiari dagozkion epeak:

Kultur programa (A lerroa) eta sormen lerroei (B lerroa) dagokionean, deialdia **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik** kontatzen hasita izango da. Hilabeteko epea izango dute eskatzaileek dokumentazioa aurkezteko.

Azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna izango balitz, eskaerak aurkezteko epea hurrengo egun balioudunera arte luzatuko litzateke.

Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak eta dagozkion zuriaketak Oñatiko Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira (Foruen enparantza 1 zkoa), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

Erregistro elektronikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, Udalaren egoitza elektronikoen sartuta, haren webgunearen bidez (www.oñati.eus).

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dira.

.-Eskabideak aurkezteko imprimakiak.

Eskariak deialdiari eransten zaizkion imprimakien bidez bideratuko dira. Imprimaki hauek interesdunen eskura Oñatiko Udaleko web orrian, dirulaguntza atalean egongo dira.

2. *Bestetik, Lege betebeharretara egokitzen joateko, Udalak zuzenean zenbait agiri NISAE plataforma bidez kontsultatu ahal izateko eta interesdunei ez eskatzeko oinarri arautzaileetan beharrezko egokitzapenak jasotzea eta onartzea.*

Hau horrela, oinarri arautzaileetan aipaturiko aldaketak honela jasota geratzen dira:

3.- Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa.

Arautegiko oinarrien 3. Puntuan txertatu dira egokitzapenak testua honela geratu delarik:

“Oñatiko Udalak, Nisae nodoaren bidez (euskadikoadministrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa), beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horrez gain, dirulaguntza hauen tramitazio administratiboan egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazioi egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edo-zein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren haritik, Oñatiko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, Nissaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Arabako Foru Aldundia: zerga-betebeharren ordainketaegunean edukitzea kontsulta.
- Bizkaiako Foru Aldundia: zerga-betebeharren ordainketaegunean edukitzea kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.
- Estatuaren Administrazio Orokorra. Zerga Administrazioiko Estatu Agentzia (AEAT): zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsultatzeko zerbitzua.

Goian zerrendatutako erakundeetatik kanpo ordaintzen dituztenek, kasuan kasuko Ogasunak emandako ziurtagiriak

aurkeztu beharko dituzte.

- Estatuaren Administrazio Orokorra. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia (GSDN): GSDNarekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.

Oñatiko Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko bete-beharrak betetzen direla.

Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Nagusiaren bidez egiaztatuko ditu ondorengo ziurtagiri publikoak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dagoelako egiaztatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta ez dauden erakundeek kasuan kasuko erregistroak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Eskaera egiten duen erakundearen estatutuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta ez dauden erakundeek estatutuak aurkeztu beharko dituzte.

Aipatu egiaztatzeak baliodunak izango dira ematen diren egunetik eta hurrengo sei hilabeteetan. Dirulaguntza jasotzenduen kontzeptu bakoitza benetan ordaintzen den unean egiaztatzea eman zen egunetik sei hilabete igarota egonez gero, organo emaileak zuzenean eskuratuko du ziurtagiri berria edo baimena eman ez duten entitate onuradunek berriro aurkeztu beharko dituzte egunean daudelako egiaztatzeak.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio entitate eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko”.

PROPOSAMENA:

Dirulaguntzaren oinarriak aldatu direnez, kultura Batzordeak Osoko Bilkurari Kultura Departamentuak kudeatzen dituen programaren kontura norgehiagoka prozeduraren bidez emango diren dirulaguntzen oinarri berriak onartzea eta 2024 urteko dirulaguntza deialdia egitea eta berau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onar dezala proposatu du.

Kultur eragileek zein norbanakoek eskaerak aurkezteko hilabeteko epea izango dute deialdia Boletinean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitazeko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztatzeak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeako balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

34.3 artikulua: *“Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

Justifikaziorik ez bada edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, dirulaguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago espedientearen kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, kultura batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA. - Oñatiko Kultur elkarte zein norbanakoen kultur programak zein sormen lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak onartzea, proposaturiko aldaketekin, eta 2024ko deialdia onartzea eta irekitzea.

BIGARRENA. - Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

HIRUGARRENA. - Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA. - Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Gaia aztertuta, eta kultura informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzaren alegazioak onartzea eta berriz hasierako onarpena ematea, zerbitzuak informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 6an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzaren alegazioak onartzea eta berriz hasierako onarpena ematea.

Xabier Berridi jaunak (azpiegitura teknikariak eta batzordearen idazkariak) 2024ko otsailaren 6an egindako zerbitzuak batzordearen sinatutako aktak dio:

“Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzari egindako ekarpenei erantzunak

Oñatiko udalerriko bideen zirkulazioa eta erabilera egungo egoerara egokitu behar da, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko Errege Dekretuak aqintzen duenez. Aipatu dekretuan adierazten da udalek, zirkulazioari buruzko udal ordenantzaren bidez, herri barruko bideen erabilera arautuko dituztela, erabiltzaile guztien artean aparkalekuak modu ekitatiboan banatuz eta ibilgailuen zirkulazioa aritzearekin eta kaleak oinezkoentzat erabiltzearekin bateragarri eginez.

Oñatin ibilgailuen trafikoan izan diren azken aldaketak kontutan hartuta, beharrezkoa ikusi da honen funtzionamendua arautuko duen ordenantza egitea, egun indarrean dagoena zaharkituta geratu baita. Ondorioz, Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantza berriaren bidez, ibilgailu motordunek eta bizikletek erabiltzen dituzten udal-eskumeneko bideen erabilera arautu nahi da, beti ere, oinezkoen lehentasuna eta segurtasuna bermatuz.

Ordenantzaren tramitazioari dagokion aurretiazko kontsulta publikora ireki eta ekarpenak egiteko, 2022ko abenduaren 7ra arteko epea finkatu zen.

Ordenantzaren egoerari buruzko azalpenak eman ditu Idoia Lazpita udaltzainburuak Batzordean:

Ekarpen hauek jaso dira erregistro elektronikoz Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzari dagozkionak:

- 2250 sarrera zenbakia duena Oñatiko herritar batek egindakoa
- 2844 sarrera zenbakia duena Oñatiko herritar batek egindakoa
- 2792 sarrera zenbakia duena PEKA, Plataforma Estatal del Karavaning elkarrekin egindakoa
- 2353 sarrera zenbakia duena, Elkartu, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinazioak egindakoa
- 3122 sarrera zenbakia duena Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaiak egindakoa

Ekarpenak aztertuta, honako artikulua hauek aldatzea proposatzen da:

1. artikulua: Trafikoari buruzko legearen azken aldaketak jasotzen dituen legearen izenburua aipatzen da.

1. Artikulua. Xedea: Ordenantza hau eman da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak 25.2.g artikuluan udalari trafiko- eta zirkulazio-arloan ematen dion eskumenaren indarrez, zeina aldatu baitzuen abenduaren 27ko 27/2013 Legeak. Era berean, Oñatiko udalerriko bideen zirkulazioaren eta erabileren egungo egoerara egokitu behar da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) aldatzen duen abenduaren 20ko 18/2021 Legetik eratorrita, puntukako gidabaimenaren eta gidalizentziaren arloan.

7., 34. eta 38. artikulua: desgaitasuna duten pertsonen erreferentzia egiteko modua aldatu da, baita horretarako prestatutako lekuetan beren ibilgailuak aparkatzeko arautzen duen txartelaren aipamena ere.

7. Artikulua. Hiri barruko bideen erabilerak udal ordenantza bidez arautzea, aparkalekuak erabiltzaileen artean ekitatez banatzea bateragarri eginez ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasunarekin eta kaleen oinezkoen erabilerarekin, bai eta aparkaldi mugatuko neurriak ezartzea ere, aparkalekuen txandaketa bermatzeko, arreta berezia jarritz mugikortasuna murriztuta duten eta ibilgailuak erabiltzen dituzten desgaituen premiei.

Horretarako, ekintza positiboko neurriak ezarriko dira, gizarteratzen eta gizartean parte hartzen laguntzeko.

34. Artikulua. Berariaz debekatuta dago bizikletak aparkatzea:

Desgaitasuna duten pertsonentzako Europako aparkatzeko txartelaren titularrak diren mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuentzako erreserbatutako aparkalekuetan (martxoaren 22ko 50/2016 dekretuak arautzen duena).

38. Artikulua. Berariaz debekatuta dago MPLak aparkatzea:

Desgaitasuna duten pertsonentzako Europako Aparkatzeko Txartelaren titularrak diren mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuentzako erreserbatutako aparkalekuetan (martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuak arautzen dena).

31. artikulua: Oinezkoen pasabideetan txirrindularia bizikletatik jaitsi beharra eta oinezko gisa gurutzatu beharra aipatzen da.

31. Artikulua. Bizikletek ezingo dute inola ere espaloietan zirkulatu, 12 urtetik beherako adingabeek izan ezik; horiek zirkulatu ahal izango dute, baldin eta oinezkoen dentsitateak horretarako aukera ematen badu, beren abiadura oinezkoen abiadurara egokitzen badute eta pertsona heldu baten ardurapean zirkulatu badute.

Oinezkoen pasabideetan, bizikletentzako pasabide espezifikorik ez dagoenean, txirrindulariak bizikletatik jaitsi eta oinezkoen pasabidea oinez gurutzatu beharko du, oinezko gisa.

35. artikulua: Bizikletan bidaiatzeko kasko homologatuari buruzko erreferentzia egiten da.

35. Artikulua. 16 urtetik beherakoek bizikletan doazenean babes-kasko homologatua erabili behar dute beti.

Nolanahi ere, bizikleta-gidariak eta bidaiariek babes-kasko homologatua erabili beharko dute herriz kanpoko bidetik zirkulatu ari direnean.

48., 50. eta 61. artikulua: Desgaitasuna duten pertsonen zama-lan guneetan aparkatu ahal dute. Kotxea bertan lagatzeko epea ordu betekoa izango da.

48. Artikulua. Zama-lan eremuetan hartzen da bide publikoan horretarako mugatuta eta seinaleztatuta dagoen espazioa. Eremu horretan ibilgailuak aparkatu ahal izango dira zama-lan egiteko behar-beharrezkoa den denboran.

Desgaitasuna duten pertsonentzako Europako aparkatze-txartelaren titularrek, ibilgailuaren barruan txartela ikusteko moduan erakusten badute, zama-lan eremuetako gordetako guneetan gelditu edo aparkatu ahal izango dute, betiere oinezkoen edo trafikoari kalterik eragiten ez badiete.

50 . Artikulua. Salgaien zama-lan honela egingo dira:

Helburu horretarako gordetako eremuetan eta dagokion seinaleztatutako kasu bakoitzerako adierazten diren ordutegiak. Zeregin hori egiteko aparkatzeko gehieneko denbora 20 minutukoa izango da, desgaitasuna duten pertsonentzako Europako aparkatzeko txartelaren titularrentzat izan ezik, ordubetekoa izango baita.

61. Artikulua. Mugikortasun urriko pertsonentzako gordetako aparkalekuetan, martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuan araututako Desgaitasuna duten Pertsonentzako Aparkatzeko Europako Txartelaren titularrak diren mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak bakarrik aparkatu ahal izango dira, baldin eta aparkatzeko txartela ibilgailuaren zipiritindegian edo aurreko haizetakoari itsatsita badute, jatorrizko dokumentuarekin betiere, haien aurrealdea kanpotik argi irakurtzeko moduan.

Artikulu hau urratzea arau-hauste LARRIA izango da.

II eranskina. 0 gunea: "Oinezkoentzako gunea" izena aldatu da eta honen ordez "Oinezkoentzako lehentasun eremua" jarri da legez izen berri horrek guneari ematen dizkion ezaugarriengatik.

Il eranskina. 0 gunea: Oinezkoen lehentasun eremua) Definizioa: sarbideak kontrolatzeko sistemaren bidez seinaleztatutako eta mugatutako bidearen zatia, non oinez zirkulatzeko duten pertsonak lehentasuna dute gainontzeko erabiltzaileen gainetik eta ibilgailu motordun, ziklomotor eta MPlen trafikorako itxita dagoena. Agintari eskudunak zehaztutako ordutegian, ibilgailu motordunen, ziklomotorren eta MPlen trafikoa baimentzen da soilik zamalanak egiteko. Bizikletek edozein ordutegian zirkulatu ahal izango dute. Gune horien barruan dauden garajeen jabeek eta erabiltzaileek ordutegi mugarik gabe zirkulatu ahal izango dute horietatik, ibilgailua garajetik sartu edo ateratzeko bakarrik.

Gaia aztertu ondoren eta Zerbitzu Batzordearen irizpena aldekoa dela kontuan hartuz, Udal Plenoari eskatzen dio Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzari egindako ekarpenak onartzea.”

Udal honentzat interesgarritzat jotzen da Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantza onartzea.

2023ko otsailaren 23an hasierako onarpena eman zitzaion ordenantzari eta emandako epean alegazioak aurkeztu ziren. Orain arte ez dira ebatzi. Horregatik, berriz entzunaldi tramitea izapidetzea beharrezkotzat ematen da.

Udaleko idazkariaren 6/2024 txostena, otsailaren 19koa, dago espedientean.

Udalaren Osoko Bilkura da organo eskuduna, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.

Azaldutakoagatik, zerbitzuak batzorde Informatiboaren oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Alegazioak onartzea 2023ko otsailaren 23an hasierako onarpena emandako zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzari.

Bigarrena.- Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzari berriz hasierako onarpena ematea, espedientean emandako idazketarekin (2024ko otsailekoa).

Hirugarrena.- Ordenantza hori berriz jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean hogeita hamar egun balioduneko epean, Udalbatzak ebatziko dituen erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, Udalaren webgunean argitaratuko da epe berdinean. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da akordioa, Udalbatzak berariazko erabakirik hartu behar izan gabe.

Laugarrena.- Behin betiko onartu ondoren, arautegi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean jarriko da indarrean.

Bosgarrena.- Erabaki hau teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Seigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako dokumentuak izenpetu eta sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta zerbitzuak informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023. urterako 0,5eko soldata gehigarria igotzea onartzea, atzeraeraginez, Oñatiko Udaleko zerbitzuko enplegatu publikoei, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 19an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: 2023. urterako 0,5eko soldata gehigarria igotzea onartzea, atzeraeraginez, Oñatiko Udaleko zerbitzuko enplegatu publikoei.

IZASKUN QUEREJETA AGIRREK Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntzako teknikaria naizenez, ziurtatzen dut 2024ko otsailaren 19ko dataz Pertsonal eta Barne Antolakuntzako Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman duela:

2023. urterako 0,5eko soldata gehigarria igotzea, atzeraeraginez, Oñatiko Udaleko zerbitzuko enplegatu publikoei.

31/2022 Legeak, abenduaren 23koak, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak (EAO 2022.12.24), 19.Bi.2.b) puntuan, honakoa dio:

“19.artikulua

Bi.1. 2023an, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ezingo dute izan ehuneko 2,5etik gorako igoera orokorra 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, konparazioaren bi aldietarako homogeneousotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez.

2. Era berean, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokionez, honako igoera hauek aplikatuko dira, bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

b) Barne Produktu Gordinak (BPG) 2023an izan duen bilakaerari lotutako gehikuntza nominala. BPG nominalaren hazkundeak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera aurkeztutako koadro makroekonomikoan Gobernuak zenbatetsitakoa berdindu edo gaitutako balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da. Ondorio horietarako, INEK 2023ko BPGren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabaki baten bidez, eta BOEn argitaratuko da.”

Erabaki hori 2024ko otsailaren 8an argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean (34. zk).

Ebazpena, 2024ko otsailaren 7koa, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzarena, Ministro Kontseiluaren 2024ko otsailaren 6ko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarrietan ehuneko 0,5eko gehikuntza onartzen da, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bat.2.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

2024ko otsailaren 19an Pertsonal eta Barne antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

LEHENENGOA.- 2023ko urtarrilaren 1eko atzeraeraginekin, Oñatiko Udaleko enplegatu publikoen soldata (funtzionarioak eta laboralak) % 0,5 igotzea (kontzeptu guztietan), bai eta antzintasuna ere (31/2022 Legearen 19.artikuluaren Bi. puntuan oinarrituta), 2024ko otsaileko nominan.

BIGARRENA.- Erabaki hau pertsonal sailari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea eta lanpostuen zerrenda egokitzea agintzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzien bidera jo aurretik, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gaia aztertuta, eta pertsonal eta barne antolakuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Pertsonaleko teknikari (A2) baten aldi baterako programa beste urte batez luzatzea onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 19an.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Pertsonaleko teknikari (A2) baten aldi baterako programa beste urte batez luzatzea onartzea.

IZASKUN QUEREJETA AGIRREK, Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntzako teknikaria naizenez, ziurtatzen dut 2024ko otsailaren 19ko dataz Pertsonal eta Barne Antolakuntzako Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

Pertsonaleko teknikari (A2) baten aldi baterako programa beste urte batez luzatzea.

2023ko urtarrilaren 26an onartu zen Osoko Bilkuran Pertsonal sailerako erdi mailako teknikari (A2) baten bitarteko programa bat sortzea, urte betez eta gehienez ere hiru urteko iraupenarekin, TREBEP 10.1. c) artikuluan azaltzen den moduan.

Aldi baterako programa horretan Amets Irastorza Garmendia (72.525.518 D) izendatu zen 2023ko otsailaren 16ko dataz eta oraindik sail horretako lan kargak jarraitzen duenez eta langile honen izendapena bertan behera uzteko arrazoirik ez daudenez,

Pertsonal eta Barne Antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen zaio Osoko Bilkurari:

Lehenengoa.- Pertsonal Teknikari (A2) aldi baterako programa luzatzea beste urte betez, eta TREBEP 10.1.c) artikulua jartzen dituen mugekin.

Bigarrena.- Horregatik guztiagatik, [REDACTED] Pertsonal Teknikari (A2) izendapena ere beste urte batez luzatzea; 2025eko otsailaren 16ra arte.

Hirugarrena.- Proposamen hau Osoko Bilkurari aurkeztea.

Laugarrena.- Interesdunari, Pertsonal Sailari eta Kontuhartzaitzari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta pertsonal eta barne antolakuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

9.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Orkatzategiko herri mendian ehiza postuak jartzeko baimenaren inguruan GFaren erantzunaren berri ematea, ingurumen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 14an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Orkatzategiko herri mendian ehiza postuak jartzeko baimenaren inguruan GFaren erantzunaren berri ematea.

Aitor Gerenabarrena Osa jaunak, Oñatiko nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikariak ziurtatzen du 2024ko otsailaren 14ko dataz ingurumen batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“Orkatzategiko herri mendian ehiza postuak jartzeko baimenaren inguruan GFak emandako erantzuna (102/esp) (4970/sar)

2023ko azaroaren 29an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran, besteak beste, Orkatzategiko herri mendian (16-010) UG1 eta UG2 ehiza postuak (Urruxola-Gorordo linea) kokatzeko baimena ematea erabaki zen, beti ere, GFaren tutoretza eta kontrolpean.

2024ko urtarrilaren 19ko email baten bidez, GFako Basanimalien eta Landareen Zerbitzuko teknikaria den Iñaki Olano jaunak zera jakinarazi du: 2023 urteko Ehiza Kontseiluan Orkatzategiko fauna babeslekua doitzea erabaki zutela. Horren ondorioz, 16-027 partzela babestutako eremutik atera zela, aldiz, 16-010 barru geratzen dela. Horren ondorioz, UG1 eta UG2 ehiza postuak ezin direla bertan kokatu.

Erabaki horrekin batera, Pago Uso Elkateko ordezkariekin batera adostu zutela, 2 ehiza postu horiek Urruxola-Gorordo uso lerroko 9 eta 10. postuen artean kokatzea.

Hortaz, Udalaren herri mendian ez dira ehiza posturik jarriko.

Gaia aztertu ondoren, Ingurumen Batzordeak aho batez erabaki du GFatik jaso den jakinarazpenaren berri Udal Osoko Bilkurari eta Pago Uso elkarteari ematea”

Gaia azterturik, eta ingurumen batzordearen aldeko irizpenarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Orkatzategiko herri mendian ehiza postuak jartzeko baimenaren inguruan GFaren erantzunaren berri osoko bilkurari ematea.

Bigarrena.- Akordio honen berri ematea Pago Uso elkarteari.

Gaia aztertuta, eta ingurumen informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

10.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuen udal ordenantzari hasierako onarpena ematea, ongizate zerbitzu informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuen udal ordenantzari hasierako onarpena ematea.

ITXARO LEIBAR SANPEDRO ANDREAK, Oñatiko Gizarte teknikaria naizenez, ziurtatzen dut 2024ko otsailaren 20an Ongizate Zerbitzu Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:

Esp. Zb.: 2024ZUDO0001

Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuen araudia

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan jasotakoaren arabera, Oñatiko Udalak zerbitzua arautzeko "erregelamenduak egiteko ahalmena" du, eta baita udal eskumeneko gizarte zerbitzuak antolatzeke ahalmena ere, 12/2008 Legearen 42.1 artikulua eta 185/2015 Dekretuaren 14. artikulua xedatutakoaren arabera.

Oñatiko Udalak, Ongizate Zerbitzuen Departamentutik, Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuen sarbidea, zerbitzuaren ezaugarriak, araubidea eta finantzazioa arautuko duen Udala arautegia egokitzeko proposamena egin du (orain arteko arautegia egokitutako duena, Udalak, 2015eko abenduaren 17ko Udal Plenoak onartu zuen, eta argitaratu, GAO 2015-12-29).

Udalak arautegia onartzeko prozedura guztia martxan jarri du. Besteak beste, honako hauek:

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikulua herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakume eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duenak 20. Artikuluan zehazten du generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzeke beharra, desberdinkeria desagerrarazteke eta berdintasuna sustatzeko.

15

Atarikoak:

Arautegi honen onarpenarekin zerbitzuaren arautegia eguneratu nahi da, zerbitzua zeinek erabil dezakeen eta zein baldintzatan finkatzeko, eta **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen duena betetzeko**. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du. Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko, eskubide subjektiboa ziurtatzeko eta prestazio edo zerbitzu bakoitzeko araututa dauden baldintzak jasoz. Zehazki, lege horrek Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuak sartzen ditu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.9 artikulua), eta udal gizarte zerbitzuei dagokie zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea.

Era berean, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karterari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 1.9.2 fitxan**, Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuei buruzkoan, honako hau jasotzen du: Etxebizitzak kolektibo-izaerako eta egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu ematen die bazterkeria-arrisku handiko egoeran dauden pertsonen. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, eta langileen etengabeko presentziarik gabe, Udalaren Gizarte Zerbitzuan erreferenteak diren teknikarien laguntza du.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarrizten du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

Arauren helburuak:

Arauren helburu nagusiak dira zerbitzua eta haren helburuak definitzea, eta funtsezko alderdiak arautzea: hala nola, oinarriko prestazioak eta osagarriak, zerbitzutik kanpo utzitakoak, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, zerbitzua eskuratzeko baldintzak eta prozedura, zerbitzua etetea eta azkentzea, eta haren araubide ekonomikoa.

Udal-jabetzako etxebizitzaren erabiltzaileak gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonak dira eta udalaren zerbitzu publikoa izaki, erabilera arautzea ezinbestekoa da, zerbitzua behar bezala emateko. Hau da, ezinbestekoa da erabiltzaileen eta Udalaren arteko harreman juridikoa antolatzen duen dokumentu bat lantzea.

Kasu honetan, erregelamendua eguneratzea eta onartzea irtenbide egokiena da, antzemandako arazoak eta beharrak konpontzeko, are gehiago kontuan hartzen badugu beste era bateko neurriek indarrean dagoen araudiarekiko kontraesanak sortuko lituzketela, eta horiek proposatutako irtenbideak partzialak izango lirakeela, eta ez behar bezain egokiak.

Arautegiaren atalak:

1. Erabiltzaileak: 1. Artikulua
 - a. Udal-jabetzako etxebizitzaren erabiltzaileak gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonak dira.
 - b. Gizarte Zerbitzuen taldeak baloratuko ditu gizartetik bazterturik geratzeko arriskuko egoera horiek, gizarte-bazterketa baloratzeko gaur egun indarrean dagoen tresna tekniko erkidearen bidez. (385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, EHAA-n 2013ko abuztuaren 7an argitaratua)
2. Sartzeko baldintzak: 2. Artikulua
 - a. 18 urte edo gehiago izatea.
 - b. EAEn erroldatua izatea eskaera data baino 6 hilabete lehenagotik, Oñatin sustraitua izatea eta/edo herrian familia-loturak izatea. Pertsona bat gizartean errotuta dagoela ulertuko da Oñatiko gizartean sartzeko borondatea erakusten duten jarduerak egiten parte hatu badu jarraitasunez: Prestakuntza jarduerak, ohiko harremana gizarte zerbitzuekin edo gizarte entitateekin, eskolatzea, enplegua, etab.
 - c. Besteak beste, kasu hauetan egotea:
 - Egonaldi motz edo ertaineko ostatua behar izatea, gizarteratzeko ibilbidea egiteko.
 - Egoeraren jakitun egotea eta aldatzeko gogoia izatea
 - Gizarteratzeko ibilbide soziolaborala edo okupazionala egiteko konpromisoa hartzea, eta zerbitzua erabiltzen den bitartean horretan jardutea.
 - Gizarte- eta hezkuntza-alorreko intentsitate txikiko laguntzaren beharra izatea, gizarteratzeko eta ingurunean bizitza autonomia egiteko behar diren gaitasun pertsonalak mantendu edo garatzeko
3. Sartzeko eskaerak eta barne-antolakuntza: 3. artikulutik 7. artikulura
 - a. Sarrera.
 - b. Zerbitzuan eskatzen duten zerrenda
 - c. Egonaldiaren epea
 - Etxebizitzan egoteko denbora zehazteko, kontuan hartuko da erabiltzailearen egoera pertsonala eta beste baliabide egokiago batzuk aurkitzeko aukera, eta aldean artean sinatutako Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) betetzea.
 - Egonaldia hamabi hilabetekoa izango da gehienez. Eta beste sei hilabetez luzatu ahal izango da, balorazio teknikoaren arabera, Ongizate Zerbitzu Batzordeak onartzen badu. Kasuko erreferentziako profesionalak irizten badu erabiltzaile baten egonaldia luzatzea komeni dela ezarritako gehieneko egonaldia baino gehiago, eta artatutako pertsona ados badago, Gizarte Zerbitzuen Batzordera bidali beharko dute eskaera idatziz egonaldia amaitu aurretik, eskaera justifikatzen duen gizarte txostenarekin batera.
 - d. Gizarte zerbitzuetako lan-taldearen funtzioak
4. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak: 8. eta 9 artikulua
 - a. Betekizunak
 - b. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak
5. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea: 10. artikulutik 21. Artikulura
 - a. Administrazio-erantzukizuna
 - b. Arau-haustea
 - c. Arau-hauste arinak
 - d. Arau-hauste larriak
 - e. Arau-hauste oso larriak
 - f. Zehapenak
 - g. Zehapenen graduazioa
 - h. Behin-behineko neurriak zehapen-prozeduretan
 - i. Preskripzioak
 - j. Zehapen-prozedura
 - k. Zehapenen erregistroa eta publizitatea
6. Lehenengo xedapen gehigarria
7. Bigarren xedapen gehigarria
8. Hirugarren xedapen gehigarria

9. Xedapen iragankorra
10. Xedapen indargabetzailea
11. Azken xedapenetik lehenengoa
12. Azken xedapena
13. I. Eranskina: erabiltzaileen diru ekarpena (Nisae Nodoaren bidez eskatzeko aukera)
14. II. Eranskina: konpromisoa
15. III. Eranskina: eskatzaileen zerrenda, sarbidearen baremoa.

Azaldutakoagatik, Ongizate Zerbitzu Batzordetik, Udal Osoko Bilkurari honako hau proposatzen dio:

LEHENENGOA.- Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuen araudia onartzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean iragartzea alegazio epeak finkatuz

HIRUGARRENA.- Oñatiko Udaleko web orrian iragartzea

LAUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei, kontu-hartzaileari, eta teknikariari jakinaraztea.”

Udal honentzat interesgarritzat jotzen da udal ordenantza onartzea.

Udaleko idazkariaren 7/2024 txostena, otsailaren 21ekoa, dago espedientean.

Udalaren Osoko Bilkura da organo eskuduna, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.

Azaldutakoagatik, ongizate zerbitzuak batzorde informatiboaren oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuen udal ordenantzari hasierako onarpenera ematea, espedientean emandako idazketarekin.

Bigarrena.- Ordenantza hori jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean hogeita hamar egun balioduneko epean, Udalbatzak ebatziko dituen erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, Udalaren webgunean argitaratuko da epe berdinean. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da akordioa, Udalbatzak berariazko erabakirik hartu behar izan gabe.

Hirugarrena.- Behin betiko onartu ondoren, arautegi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean jarriko da indarrean.

Laugarrena.- Erabaki hau teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Bostgarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako dokumentuak izenpetu eta sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta ongizate zerbitzuak informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

11.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: SURADESA Oñatiko Udalaren bitarteko propio izatea berariaz aitortzea, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: SURADESA Oñatiko Udalaren bitarteko propio izatea berariaz aitortzea.

2024ko otsailaren 20an egindako ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, ogasun batzordeko idazkariak eta kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

“3.- SURADESA Oñatiko Udalaren bitarteko propio izatea berariaz aitortzea

SURADESAk eskaera bat egin zion Oñatiko Udalari, alegia, berariaz aitortzea Suradesa enpresa Oñatiko Udalaren bitarteko propio zela. Eskaera horren inguruan Idazkariak honako txostena egin du:

“

Alkatearen proposamena

Izaro Elorza Arregui andrea, Oñatiko Udaleko alkate-presidentea, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz.

Gaia: SURADESA Oñatiko udalaren bitarteko propio izatea berariaz aitortzea, SPKLaren 32.4 artikulua arabera.

Aurrekariak:

I.- 2023/10/20an udal honek 2023/5295 eskaera jaso zuen, SURADESA bitarteko propio izatea berariaz aitortzeko. Eskararekin batera, [REDACTED] (Suradesako aholkulari juridikoa) 2023/10/18ko txosten juridikoa atxikitu zen.

II.- Ikusita 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, bere 86.2 artikuluan dioena:

“Baliabide propio eta zerbitzu teknikitza joko dira baldin eta egiaztatzen bada sorrerako arau edo akordioaren arabera haien sozietate-xedearekin bat datorren jarduera-sektorean prestazioak emateko baliabide nahiko eta egokiak izateaz gain inguruabar hauetako bat gertatzen dela:

a) Kontratazio publikoa baino aukera efizienteagoa da, eta iraunkorra eta efikaza da errentagarritasun ekonomikoko irizpideak aplikatuta.

b) Beharrezkoa da segurtasun publikoko arrazoiengatik edo baliabide propioak edo zerbitzu teknikoak emandako ondasun edo zerbitzuak edukitzeko presarengatik.

Baliabide propio eta zerbitzu teknikoaren efikazia kontrolatzean, egiaztatu beharko da aipatutako betekizun horiek betetzen direla.

Baliabide propio diren sektore publiko instituzionaleko entitateen izendapenean nahitaez agertu beharko da «Baliabide Propioa» adierazpena edo horren laburtzapena, «B.P.».

Ikusita Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak emandako ebazpena 15/17 espediente zenbakian.

Ikusita 2019ko martxoaren 19ko baterako Zirkularra, Estatuko Abokatutza Nagusiarena-Estatuko Zerbitzu Juridikoa eta Estatuko Kontuhartzailatza Nagusiarena, betekizunaren zenbaketa kalkulatzeko irizpideei buruzkoa.

Ikusita 1/2021 Auditoretza Bulego Nazionalaren Ohar teknikoa, kontu-auditoretzan bitarteko propioetat hartzeari buruzkoa.

Ikusita 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratazioari buruzkoa, eta bereziki 32.4 artikuluan dioena:

“Elkarrekiko independenteak diren bi botere adjudikatzailearen edo gehiagoren bitarteko propio pertsonifikatutza hartuko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatuak eman diezazkioketen botere adjudikatzaileek beren zerbitzu edo unitate propioekiko izan lezaketaren antzeko kontrol bat izatea, batera, horien hartzailea den entearen gainean.

b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzaileek -edo botere adjudikatzaile horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek emandako eginkizunak betez.

c) Artikulu honek 2. apartatuko c) eta d) letretan ezarritako baldintzak betetzea.”

Ikusita Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren 2022ko ekainaren 16ko 696 ebazpenak, besteak beste, honakoa xedatzen du:

“27. Orrialdean: Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak (IGAE), bitarteko propio baten eraginkortasuna kontrolatzean eta gainbegiratzean, baloratu behar du kontratazio publikoa baino aukera efizienteagoa, jasagarriagoa eta eraginkorragoa den...”

28. orrialdean: Izan ere, bitarteko propioaren kontrol-mekanismoa legez ezabatu arren (Memorian nahitaez aipatu behar ziren SPKLren 32. artikuluko betekizunak eta ez-betetzearen ondorioak), ohar teknikoak zehazten du nola islatu behar diren ez-betetzeak auditoretzetan.”

2023ko azaroaren 27an agiri osagarriak aurkezteko errekerimendua bidali zitzaion (I.E: 2023/2406), honako agiriak eskatzeko:

-Suradesa-ren xedearekin bat datozen jardueren prestazioak emateko baliabide nahiko eta egokiak dituela adieraztea eta justifikatzea (40/2015 Legearen 86.2 artikulua).

-SPKLaren 32.4 artikuluan xedatzen diren betekizunak betetzen dituela adieraztea eta justifikatzea. Horretarako, udaleko kontuhartzaileak gainbegiratzeko, besteak beste, Suradesa-ren urteko kontuak edo egokiak iruditzen diren agiriak aurkeztu beharko dira (memoria, auditoreen txostenak...).

III.- 2023/12/11an udal honek 2023/6164 sarrera erregistro bidez eskatzen ziren justifikazioak jaso zituen: Iker Urbinaren idatzia non aitortzen da giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela bere helburu sozialak betetzeko. Gainera, SPKLaren 32.4 artikulua xedatzen dituen betekizunak betetzen direla aitortzen da eta agiriak Oñatiko udalaren kontuhartzaileak gainbegiratzeko eskuragarri daude.

Oñatiko udaleko kontuhartzaileak ez du urtero jasotzen dituen kontuen gainean eta betekizunak betetzen ez direnaren eragozpenik adierazi.

IV.- Udalek 3/2015 Euskadiko etxebizitza legearen arabera zenbait eskumen dituzte etxebizitza arloan. Horrela, legearen 10. artikulua honakoa dio:

“2. Udalei dagozkien beren titulartasuneko zuzkidura-bizitokiaren antolamendu, sustapen, kudeaketa, esleipen eta kontrolerako eskumenak, bai eta udal-araubide tasatuko etxebizitza, lokal eta eranskinenak ere, eraikuntza berrikoak izan edo birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko berariazko planen ondoriozkoak izan.

3. - Lege honetan aurreikusitakoaren arabera, halaber udalei dagozkien ikuskatzeko, behin-behineko neurriak hartzeko eta eraikinak egoki erabiliko direla bermatzeko esku-hartze publikoko ahalmen eta ahalak, baita etxebizitzaren merkatuan eraqitekoak ere, eta orobat beraiei dagozkien etxebizitza-gaietan zehatzeko ahalak erabiltzea.”

V.- Ikusita 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena.

VI.- 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 23koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa, 7.8. artikulua honakoa xedatzen du:

“Ez daude zergari lotuta:

8.a.

A) Administrazio publikoek eta ordinal honetako C) eta D) letretan aipatzen diren entitateek kontraprestaziorik gabe edo zerga kontraprestazio baten bitartez zuzenean egiten dituzten ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak.

C) Sektore publikoko ente, organismo eta entitateek egindako mandatuen bidez ematen diren zerbitzuak ez dira zergaren menpe egongo, baldin eta erakunde haiek, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, mandatu eman duen botere adjudikatzailearen baliabide propio pertsonifikatua badira lehen aipatutako 32. artikuluan ezarritako moduan (9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duena).

D) Halaber, ez dira zergari lotuta egongo sektore publikoko edozein ente, organismo edo erakunde emandako zerbitzuak -Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 3.1 artikuluan aipatutako moduan- haien gaineko administrazio publikoari edo administrazio publiko horien mendeko den beste bati zuzentzen bazaizkie eta administrazio publiko horiek aipatutako ente, organismo edo erakundearen gaineko titulartasun osoa badute (9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duena).”

VII.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, honakoa dio lehenengo xedapen gehigarrian:

“52., 53., 54., 55. eta 59. artikuluetan jasotako printzipioak Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko erakundeetan aplikatuko dira, baldin eta Estatutu honen 2. artikuluan sartuta ez badaude eta beren araudi espezifikoko horrela definituta badaude.”

Gainera, kontuan hartu behar da Auzitegi Gorenaren 44/2023 ebazpena, (2508/2020 errekurtsioa, 2023/06/20koa), non mugagabe ez-finkoaren doktrina aplikatzen duen sozietate publikoetan.

VIII.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak dioena ikusita.

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontuhartzaileak egingo du eginkizun kontuhartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontuhartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Gaia aztertutik, eta ogasun batzordearen irizpena ondoren, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- SURADESA Oñatiko udalaren bitarteko propio izatea berariaz aitortzea, SPKLaren 32.4 artikulua araberan.

Bigarrena.- Urtero SURADESaren kontuak udalean aurkeztu beharko dira, SPKLaren 32. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea akordio hau gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatea

Sin.: Iزارo Elorza Arregui andrea.

Ogasun Batzordeak, aho batez, honako irizpena ematen du eta Osoko Bilkurari igortzen dio:

Lehenengoa.- SURADESA Oñatiko udalaren bitarteko propio izatea berariaz aitortzea, SPKLaren 32.4 artikulua araberan.

Bigarrena.- Urtero SURADESaren kontuak udalean aurkeztu beharko dira, SPKLaren 32. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea akordio hau gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Gaia aztertutik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- SURADESA Oñatiko udalaren bitarteko propio izatea berariaz aitortzea, SPKLaren 32.4 artikulua araberan.

Bigarrena.- Urtero SURADESaren kontuak udalean aurkeztu beharko dira, SPKLaren 32. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea akordio hau gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta ogasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

12.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko diru-laguntzen oinarriak eta 2024ko dirulaguntzen deialdia onartzea, berdintasun informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 13an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko diru-laguntzen oinarriak eta 2024ko dirulaguntzen deialdia onartzea.

2024ko otsailaren 13an egindako berdintasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, berdintasun batzordeko idazkariak eta teknikariak (Jone Arriolabengoa Martiarena andreak), ziurtatzen duenez.

“Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzen 2024 urteko deialdia onartzea.

2021eko uztailaren 22an Osoko Bilkuran onartu zen Oñatiko Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako II. Planak, emakumeen ahalduntzea eta parte hartze soziala indartzeko helburuarekin zenbait ekintza jasotzen ditu.

3.2. Helburu estrategikoaren baitan kokatzen da emakumeen partaidetza soziopolitiko eta eragina sustatzea, eta honek hainbat ekintza jasotzen ditu helburuaren garapenerako.

Helburu hori oinarri hartuta, 2024ko otsailaren 13an egin zen bileran Berdintasunerako Batzordeak aho batez onartu zuen Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru laguntzen oinarrien proposamena eta 2024 urterako deialdia burutzea.

Hala, Berdintasun Batzordearen eta Ogasun Batzordearen aldeko irizpenarekin **Osoko bilkurari ondorengo ebazpen proposamena egiten zaio:**

- Onar ditzala gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko diru laguntzen oinarri arautzaileak.
- **Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko diru-laguntzen 2024 urteko deialdia onartzea eta 2024ko aurrekontu ekitaldiari dagokion deialdirako, 8000€-ko gastua baimentzea, aurrekontuko 1 0503.481.231.50.01 2024 (780) diru atalaren kargura.**
- **Eskaerak jasotzeko 30 egun balioduneko epea ezartzea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatuzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

34.3 artikulua: *“Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, dirulaguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”*

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago espedientean kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, berdintasun batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea, proposaturiko aldaketekin, eta 2024ko deialdia onartzea eta irekitzea.

BIGARRENA.- Diru-laguntza honek dakartzan gastua (8.000€) onartzea aurrekontuko aipatutako diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

HIRUGARRENA.- Eskaerak jasotzeko 30 egun balioduneko epea ezartzea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

LAUGARRENA.- Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi

errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Gaia aztertuta, eta berdintasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

13.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Berezaoko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Berezaoko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa jaunak, Oñatiko nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikariak ziurtatzen du 2024ko otsailaren 20ko dataz landa garapen batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“Berezaoko auzo-alkatea berria izendatzeko proposamena (1115/esp) (923/sar)

2024ko urtarrilaren 23ko sarrera-data (923 zk.) duen idatziaren bitartez, orain arte Berezaoko auzo-alkate izandako Eusebio Aguirre Altube jaunak auzo-alkate aldaketaren berri eman du.

Auzoak horrela erabakita, hemendik aurrera Berezaoko auzo-alkate berria Etxaburu baserriko Aitziber Gorostiza Anduaga andrea izango da.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko Bilkurari Berezaoko auzo-alkate berria Aitziber Gorostiza Anduaga andrea izendatu dezala.”

1.- Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren **122. artikulua** honako hau dio:

“1. Hirigunetik bereizitako eta toki-erakunderik osatzen ez duten herrixka eta auzune bakoitzean, alkateak ordezkari pertsonal bat izendatu ahal izango du horietan bizi diren bizilagunen artean.

2. Alkateak ordezkari horiek izendatu ahal izango ditu, halaber, zerbitzuen funtzionamenduak hala gomendatzen duen hirietan. Ordezkariak bere eginkizunak betetzen dituen gunean bertan egon beharko du.

3. Karguaren iraupena izendatu zuen alkatearen aqintaldiaren arabera izango da, eta alkateak egoki irizten dionean mugiarazi ahal izango du.

4. Ordezkariak agintari-izaera izango dute udal-eginkizunak betetzean, izendatu zituen alkatearen ordezkari diren aldetik.”

Azaldutakoagatik, eta landa garapen batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Aitziber Gorostiza Anduaga andrea Berezaoko auzo-alkate izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek legegintzaldi honen bitartean izango du indarra.

Hirugarrena.- Aurreko legegintzalditik datozen auzo-alkateak berrestea, jakinda edozein momentuan aldaketaren bat egitea proposatu daitekeela, auzoak hala proposatua.

Laugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta landa garapen informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

14.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Lezesarriko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Lezesarriko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa jaunak, Oñatiko nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikariak ziurtatzen du 2024ko otsailaren 20ko dataz landa garapen batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“Lezesarriko auzo-alkatea berria izendatzeko proposamena (1120/esp) (1316/sar)

2024ko otsailaren 5eko sarrera-data (1316 zk.) duen idatziaren bitartez, orain arte Lezesarriko auzo-alkate izandako Eukene Bikuña Urzelai andreak auzo-alkate aldaketaren berri eman du.

Auzoak horrela erabakita, hemendik aurrera Lezesarriko auzo-alkate berria Jaumendi baserriko Imanol San Migel jauna izango da.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko Bilkurari Lezesarriko auzo-alkate berria Imanol San Migel jauna izendatu dezala..”

I.- Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren **122. artikulua**k honako hau dio:

“1. Hirigunetik bereizitako eta toki-erakunderik osatzen ez duten herrixka eta auzune bakoitzean, alkateak ordezkari pertsonal bat izendatu ahal izango du horietan bizi diren bizilagunen artean.

2. Alkateak ordezkari horiek izendatu ahal izango ditu, halaber, zerbitzuen funtzionamenduak hala gomendatzen duen hirietan. Ordezkariek bere eginkizunak betetzen dituen gunean bertan egon beharko du.

3. Karguaren iraupena izendatu zuen alkatearen agintaldiaren araberakoa izango da, eta alkateak egoki irizten dionean mugiarazi ahal izango du.

4. Ordezkariek agintari-izaera izango dute udal-eginkizunak betetzean, izendatu zituen alkatearen ordezkari diren aldetik.”

Azaldutakoagatik, eta landa garapen batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Imanol San Migel jauna Lezesarriko auzo-alkate izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek legegintzaldi honen bitartean izango du indarra.

Hirugarrena.- Aurreko legegintzalditik datozen auzo-alkateak berrestea, jakinda edozein momentuan aldaketaren bat egitea proposatu daitekeela, auzoak hala proposatua.

Laugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta landa garapen informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

15.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Araozko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Araozko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa jaunak, Oñatiko nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikariak ziurtatzen du 2024ko otsailaren 20ko dataz landa garapen batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“Araozko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena (1120/esp) (1380/sar)

2024ko otsailaren 7ko sarrera-data (1380 zk.) duen idatziaren bitartez, orain arte Araozko auzo-alkate izandako Mirari Ibabe Erostarbe andreak auzo-alkate aldaketaren berri eman du.

2024ko otsailaren 4ko auzo bileran horrela erabakita, hemendik aurrera Araozko auzo-alkate berria Txomena baserriko Aitor Guridi Grisaleña jauna izango da.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko Bilkurari Araozko auzo-alkate berria Aitor Guridi Grisaleña jauna izendatu dezala..”

I.- Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren **122. artikulua**k honako hau dio:

“1. Hirigunetik bereizitako eta toki-erakunderik osatzen ez duten herrixka eta auzune bakoitzean, alkateak ordezkari pertsonal bat izendatu ahal izango du horietan bizi diren bizilagunen artean.

2. Alkateak ordezkari horiek izendatu ahal izango ditu, halaber, zerbitzuen funtzionamenduak hala gomendatzen duen hirietan. Ordezkariek bere eginkizunak betetzen dituen gunean bertan egon beharko du.

3. Karguaren iraupena izendatu zuen alkatearen aqintaldiaren arabera izango da, eta alkateak egoki irizten dionean mugiarazi ahal izango du.

4. Ordezkariek agintari-izaera izango dute udal-eginkizunak betetzean, izendatu zituen alkatearen ordezkari diren aldetik.”

Azaldutakoagatik, eta landa garapen batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Aitor Guridi Grisaleña jauna Araotzeko auzo-alkate izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek legegintzaldi honen bitartean izango du indarra.

Hirugarrena.- Aurreko legegintzalditik datozen auzo-alkateak berrestea, jakinda edozein momentuan aldaketaren bat egitea proposatu daitekeela, auzoak hala proposatua.

Laugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta landa garapen informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

16.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko dirulaguntza deialdia onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko dirulaguntza deialdia onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa jaunak, nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikaria eta landa garapen batzordearen idazkariak, 2024ko otsailaren 20an egindako landa garapen batzordearen aktak honela dio:

“Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko dirulaguntza deialdia

Mendiko larreak Batasunaren intereseko habitatak dira, eta lehentasunezko azpimota batzuk ere badira. Kontserbatuko badira, gainbehera etorri diren jarduera tradizionalei eutsi beharko zaie, era aktiboan kudeaturiko abeltzaintza estentsiboa behar da. Horrenbestez, mendiko larreak zaintzeko alderdirik garrantzitsuenetako bat izan beharko zen abeltzaintza estentsiboa sustatzeko gaitasuna, aldeko kudeaketa aktiboaren bidez; bereziki, ardi-aziendari dagokionez.

Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko lerro honen bidez abeltzaintza estentsiboa lagundu nahi da, halaber, artzain txabolak hutsik egon beharrean, erabilera emanda Udal-ondarea kontserbatzen eta mantentzen lagundu nahi da.

2022ko ekainaren 30ean Udal Osoko Bilkurak behin betiko onartu zuen Udalaren Herri Onurako Mendietan larreratzek eta artzain-txabolen erabilera arautzeko udal ordenantza (2022/07/29 GAO). Ordenantzaren VI. tituluak artzain-txabolen erabilera eta lagapena arautzen du. Irizpide orokor bezala, Herri Onurako Mendietan dauden txabolak artzaintza jarduerari lotutako erabilerako izango dira soilik. Laguntza hauen onuradunak izango dira Oñatiko Herri Onura Mendietan dauden artzain txabolen erabiltzaileak.

Udalaren Herri Onurako Mendietan larreratzek eta artzain-txabolen erabilera arautzeko udal ordenantzaren 22. artikularen arabera, txabolaren lagapena duen bitartean, artzainak mantenu arruntaren ardura izango du, mantenu arruntetatik kanpo gelditzen diren konponketak edo inbertsioak Udalaren ardura izango dira.

Lau laguntza atal ezberdintzen dira. Laguntza banatzerako orduan artzaintza ogibide dutenek eta bertatik bizi ez direnak ezberdintzen dira, aurrenekoei lehentasuna emanda. Lehenetsi egiten dira jarduerari lotutako inbertsio edo gastuak, txabolaren kontserbazioari lotutako gastu edo inbertsioen aurrean.

2023ko deialdia arautu zuten oinarri arautzaileak Udal Osoko Bilkurak 2023ko uztailaren 20an egindako bileran onartu ziren. Tellatxabola artzain txabolen lagapena izapidetzen zegoenez, delako deialdia urtea bukatu aurretik ezin gauzatu izan zen.

Orain, 2024ko larre kanpaina hasi aurretik, deialdi berria egin nahi da.

Batzordeak aipatu oinarri arautzaileak aztertu ondoren, zuzenketa txikiak egin dizkio.

2023ko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran onartu zen 2024ko Udal aurrekontua. Bertan jasotakoaren arabera, 1 1106.481.172.00.01 2024 (5702) "HOM txabolen dirulaguntza" diru-atalean 13.000 € jasota daude.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko Bilkurari onar ditzala Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko dirulaguntza deialdia."

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: "Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira."

34.3 artikulua: "Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da."

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

"1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela."

25

Jasota dago espedientean kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, landa garapen batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko dirulaguntza deialdia onartzea.

BIGARRENA.- Diru-laguntza honek dakartzan gastua (13.000€) onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen bidez onartuko diren oinarri arautzaileek eragina izango dutela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

LAUGARRENA.- Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

BOSTGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsioa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Gaia aztertuta, eta landa garapen informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

17.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Ingurumena eta Landa Garapen sailak kudeatzen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Ingurumena eta Landa Garapen sailak kudeatzen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa jaunak, nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikaria eta landa garapen batzordearen idazkariak, 2024ko otsailaren 20an egindako landa garapen batzordearen aktak honela dio:

“Ingurumena eta Landa Garapen sailak kudeatzen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia (1129/esp)

Aurreko urteetako dinamikari jarraituta, Oñatiko lehen sektorea bultzatzeko eta sustatzeko 2024ko laguntza deialdi egiteko oinarri arautzaileak aurkeztu dira.

2024ra begira, lerro berri bat jaso da: baserrien kanpoaldean jarritako argi-puntuen instalazioa finantzatzeko diru-laguntza. Udalak argizatzen dituen baserri-multzoek gain, baserrietan argia izatea ezinbestekoa da, iluntasunak segurtasun falta ekartzen duelako.

Laburbilduta, honako dirulaguntza lerroak jasotzen dira:

- 1. Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko dirulaguntzak.*
- 2. Bertako produktuak merkaturatzeko dirulaguntzak*
- 3. Nekazaritza erabilerako ura ordaintzeko dirulaguntza.*
- 4. Putzu septikoak garbitzeko eta instalatzeko dirulaguntzak*
- 5. Landa-auzoetako ermiten argindar kostea ordaintzeko dirulaguntzak*
- 6. Basobide pribatuak eraiki eta hobetzeko dirulaguntzak*
- 7. Baserrien kanpoaldean jarritako argi-puntuen instalazioa finantzatzeko diru-laguntza*

2023ko deialdia arautu zuten oinarri arautzaileak Udal Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 30ean egindako bileran onartu ziren eta 2023/04/18k GAO-n argitara eman ziren.

Batzordeak aipatu oinarri arautzaileak aztertu ondoren, laburbilduta, honako aldaketak egitea proposatu ditu:

- 1. Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko dirulaguntza lerroan, 2023 eta 2024ko egitasmoak diruz laguntzeko aukera ematea.*
- 2. Basobide pribatuak eraiki eta hobetzeko dirulaguntza lerroan, soilik urteko egitasmoak diruz laguntzeko aukera ematea.*
- 3. Baserrien kanpoaldean jarritako argi-puntuen instalazioa finantzatzeko lerroa gehitzea*

2023ko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran onartu zen 2024ko Udal aurrekontua. Bertan jasotakoaren arabera, 1 1104.481.410.00.21 2023 (5675) “landa garapen dirulaguntzak” diru-atalean 67.010,00 € jasota daude.

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko Bilkurari Ingurumena eta Landa Garapen sailak kudeatzen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartu dezala.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulu hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago espedientearen kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, zerbitzuak eta landa garapen batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Ingurumena eta Landa Garapen sailak kudeatzen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartzea.

BIGARRENA.- Diru-laguntza honek dakartzan gastua (67.010€) onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen bidez onartuko diren oinarri arautzaileek eragina izango dutela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

LAUGARRENA.- Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

BOSTGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuak erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsioa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Gaia aztertuta, eta landa garapen informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

18.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2024ko Auzotasun programa garatzeko hitzarmen markoa eta diru-laguntza izendunak onartzea, landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 20an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: 2024ko Auzotasun programa garatzeko hitzarmen markoa eta diru-laguntza izendunak onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa jaunak, nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikaria eta landa garapen batzordearen idazkariak, 2024ko otsailaren 20an egindako landa garapen batzordearen aktak honela dio:

“2024ko Auzotasun programa garatzeko hitzarmen markoa

2013an Oñatiko Udalak auzotasuna deritzon laguntza programa abian jarri zuen eta ordutik hona urtero mantendu izan da. Auzotasuna deritzon programaren xedea da Oñatiko landa auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea eta auzotarren harremanak sustatzea. Auzoaren izaera eta nortasuna indartu eta auzo bizitza mantendu ez ezik indartzen ere laguntzen duten jarduerak bultzatzea da helburua.

2024an Auzotasun Programarekin jarraitzeko helburuarekin auzotasun programa garatzeko hitzarmen eredia aurkeztu du teknikariak.

2023ko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran onartu zen 2024ko Udal aurrekontua. Bertan jasotakoaren arabera, auzo bakoitzaren izenean jasota dagoen diru-atala honakoa da:

auzoa	diru-kopurua
arantzazu	6.176,89
araotz	9.924,76
berezao	4.803,80
garagaltza	7.670,14
garibai	4.400,00
goribar	4.400,00
larraña	8.051,73
lezesarri	7.074,08
murgia	6.574,87
olabarrieta	18.826,71
santxolopetegi	4.400,00
torreauso	4.400,00
uribarri	6.591,98
urrexola	4.400,00
zañartu	4.400,00
zubillaga	15.267,46
	117.362,42 €

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko Bilkurari 2024ko auzotasun-programa garatzeko hitzarmen eredia onartu dezala.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (22.2 a eta 28 artikulua) eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (14. Artikulua) ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.2 artikulua: “Diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

A) Estatuaren, autonomia-erkidegoen edo toki-erakundearen aurrekontu orokorretan izendun gisa aurreikusitakoak, hitzarmenetan eta diru-laguntza horiek arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.” 28. Artikuluan garatzen da.

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak, 3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratoritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Gaia azterturik, eta landa garapen batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

Lehenengoa.- 2024ko Auzotasun programa garatzeko hitzarmen markoa eta diru-laguntza izendunak onartzea, horretarako adostasuna ematea, espedientearen agertzen den zirriborroaren arabera.

Bigarrena.- 2024rako 117.362,42 euroko gastua onartzea, dagokion diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea ebazpena emateko unean.

Hirugarrena.- Diru-laguntza izendun hauek, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikariari jakinaraztea.

Seigarrena.- Aipatutako hitzarmen arautzaileak sinatzeko baimena ematea Alkateari.

Gaia aztertuta, eta landa garapen informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

19.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Kirol elkarte eta taldeei diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2024ko diru-laguntzen deialdia onartzea, kirol informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 21ean.

29

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Kirol elkarte eta taldeei diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2024ko diru-laguntzen deialdia onartzea.

Oskar Carrascal Gonzalez, Kirol Teknikariak eta Kirol Batzordearen idazkariak, ziurtatzen du 2024ko otsailaren 21eko datuz Kirol Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“Kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024: oinarri arautzaile eta deialdiaren proposamena

Oñatiko kirol elkarte eta taldeen ohiko jarduera eta kirol proben antolaketa gastuei aurre egiten laguntzeko, dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu du Udal kirol batzordeak. Horrela bada, oinarri arautzaileetan jaso bezala, bi dirulaguntza lerro eskainiko ditu Udalak kirol arloan:

- 1.- Oñatiko Udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako diru-laguntzak
- 2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak

Dirulaguntza lerroen finantziazioa honakoa da:

1 .- Oñatiko udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzak diruz-laguntzeko: 2024ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira bi mila bostehun euroko (2.500) gastua baimentzen da, 1.0700.481.341.0004.2024-283 Herriko Taldeen Kirol Ekintzen Antolaketa ” kontu sailaren kargura.

2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diruz-laguntzeko: 2024rako onartzen da hamabi mila seiehun eta laurogei euroko (12.680) gastua baimentzen da, 1.0700.481.341.0004.2024-283 Herriko Taldeen Kirol Ekintzen Antolaketa kontu sailaren kontura.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitazeko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzen balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arazoirekin bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du: “1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da. 2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago espedientean kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, kirol batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Kirol elkarte eta taldeei diruz laguntzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea, proposaturiko aldaketekin, eta 2024ko deialdia irekitzea.

BIGARRENA.- Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen bidez onartuko diren oinarri arautzaileek eragina izango dutela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

LAUGARRENA.- Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

BOSTGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsioa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekursorik aurkeztu hari eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekursio aurkez daiteke.

Gaia aztertuta, eta kirol informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

20.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta EHU artean lankidetzaren hitzarmenaren luzapena onartzea, turismo informazio batzordean diktaminatua 2024ko otsailaren 21ean.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñatiko Udalaren eta EHU artean lankidetzaren hitzarmenaren luzapena onartzea.

2024ko otsailaren 21ean egindako turismo batzordeak aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, Ikerne Altube Eraña andreak, turismo teknikariak bere aktan jasotzen duenez:

“Oñatiko Udalaren eta EHU artean lankidetzaren hitzarmenaren luzapena egitea proposatzen da. Oñatiko Udalaren jabegoa den Arrikruz-Oñatiko Kobetan edota Oñatiko lurretan dauden beste aurre-historiako gune interesgarrietan EHUKo Aurre-historiako Taldearekin lankidetzaren bideratzeko.

IKERNE ALTUBE ERAÑAK, Oñatiko turismo teknikariak ziurtatzen du 2024ko otsailaren 21eko dataz Turismo Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“Oñatiko Udalaren eta EHU artean lankidetzaz hitzarmenaren lau urteko luzapena aurrera eramatea proposatzen da”.

Alkateak proposatzen du lankidetzarako hitzarmena luzatzea Oñatiko Udala eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean, Oñati herri-guneko Arkeologia-paleontologia aztarnategien zabalkunde, ikerketa, aholkularitza eta baloreen jartzea.

Oñatiko Udalak, 2019ko abenduak 12ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiz, Oñatiko Udalaren eta EHU artean lankidetzaz hitzarmena sinatzeko aurrera eramatea onartu zen eta 4 urtez Oñatiko Udalaren eta EHUko Aurre-historiako Taldearekin lankidetzaz bideratu da, Oñati herri-guneko Arkeologia-paleontologia aztarnategien zabalkunde, ikerketa, aholkularitza eta baloreen jarritza.

Hitzarmenaren xedea, Oñatiko Udalaren eta EHUko Aurre-historiako Taldearekin lankidetzaz beste lau urtez bideratzea, Oñati herri-guneko Arkeologia-paleontologia aztarnategien zabalkunde, ikerketa, aholkularitza eta baloreen jartzea.

Akordio marko bat izanda, urtero, egingo diren ekimenen menua prestatuko dute elkarlanean.

“Hitzarmen luzapen honek lau urteko indarraldia izango du sinatzen den egunetik aurrera, eta, aldi hori amaitu ondoren, non eta alde sinatzaileetako batek hura salatzen ez badu, hemen hitzartutakoak eraginik ez izatea nahi den ikasturtearen aurreko ikasturteko martxoan”.

Turismo informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen zaio Osoko Bilkurari:

Lehenengoa. - *Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Oñatiko Udalaren arteko lankidetzarako hitzarmenaren luzapena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, espedientean dagoen zirriborro dokumentuaren arabera.”*

Hitzarmenaren ekimen nagusien 2024rako aurreikusitako prestakuntza, kontserbazio, ikerketa, aholkularitza eta dibulgazio lan hauek 12.000€ aurrekontua daukate eta partida ere aurreikusita dago Arkeologia proiekturako dirulaguntzak (1.1000.480.432.02.01.2024) eta datozen hiru urteotarako (2025-2026-2027) konpromisu-kreditua onartzen dela.

Honako gaiak garatuko dira:

1. Oñatiko udalerrian landa-eremuko eta laborategiko ikerketa arkeologikoko jardueren programa.
2. Oñatiko udalerriko ondare arkeopaleontologikoa zabaltzeko programa, bai esparru espezializatuan (“Oñatiko Unibertsitatea Arkeotopaketak”), bai dibulgaziokoagoan (hitzaldiak).
3. Oñatiko kultur ondareari lotutako teknikarientzako prestakuntza osagarriak (Kultura, Turismo, Arrikrutzeak Kobak, etab.).
4. Ondare arkeopaleontologikoa balioesteko garatu beharreko beste ekimen batzuk, bi aldeek adostuak eta Jarraipen Batzordeak monitorizatuak.

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

“-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmenak hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”

-48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

8. Alderdiak adostasuna eman ez burutzen dira hitzarmenak.

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. *Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.*

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehatzua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.3.artikulua: “Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

C) *Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.*

30.2 artikulua: “*Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.*”

34.3 artikulua: “*Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

2019ko abenduak 12ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiz hitzarmena onartzea erabaki zen, betiere, iraupenari dagokionez gehienez 8 urte.

Gaia azterturik, eta turismo batzordearen irizpenarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Oñatiko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren lau urteko luzapena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, espedientean dagoen zirriborro dokumentuaren arabera.

Bigarrena.- Hitzarmenaren luzapen honek, 4 urteko iraupena izango du, bi alderdiak espreski hori adosten baldin badute.

Hirugarrena.- Oñatiko turismo teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

Laugarrena.- Hitzarmen honek dakarren gastua (dirulaguntza zuzena, 12.000€) onartzea, 2024ko aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Bosgarrena.- Datozen hiru urteotarako (2025-2026-2027) konpromisu-kreditua onartzea.

Seigarrena.- Alkateari ahalmena ematea luzapena sinatzeko.

Zazpigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Zortzigarrena.- Diru laguntza zuzen hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Bederatzigarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta turismo informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

21.- Hala badagokio, presako gaiak.

Ez daude.

22.- EAJ-PNV udal taldearen mozioa, Oñatiko ondarea babestekoari buruzkoa.

Erostarbe andreak eta Mugarza jaunak mozio hau irakurri dute:

“OÑATIKO ONDAREA BABESTEKO, SENTSIBILIZAZIO-KAN-PAINA BEHAR DA

Nazio Batuen Turismoaren Munduko Erakundeak (UNWTO) Herri Tu-ristiko Onenen zerrendan sartu du Oñati 2023ko urrian, beste bi herrie-kin (Sigüenza eta Cantavieja). Izendapena oinarritu da garapen iraunkorren hiru zutabeetako arloetako baliabideen eta ekimenen ebaluazioan: ekonomia, gizartea eta ingurumena. Halaxe jasota dago erabakiaren idatzian: “Kultura- eta natura-ondasunak dituen landa-turismorako gune baten adibide nabarmena da, landa-bizimoduaren eta komunitatearen balioak, produktuak eta bizimodua zaintzen eta sustatzen ditu, eta berri-kuntzaren eta iraunkortasunaren oso konprometituta dago”.

Antza, ondare kulturala eta historikoa zaintzea eta kontserbatzea ez dagoela irizpide horien artean, herriko etxeetako eta pasealekuetako hormen egoeran arreta jartzen badugu behintzat, herrigune historikoan bereziki. Gehitu ditzakegu errepideetako seinaleen, biribilguneen, tube-rien bajanteen... txukuntasun eta garbitasun falta. Izan ere, azken urtee-tan, zabarkeria joan da nagusituaz. Zertatik ote? Batetik, zabarkeria ho-rretara, dagoeneko, ohituz joan gara oñatiarrok? Bestetik, herritarrek ez dira ausartzen borroka horretan sartu, eta protesta egitera? Bista-bistan dago, “Kristal hautsien teoriaren” adibide garbia daukagu Oñati gure herrian. Eraikin historiko ederrak ditu nonahi, mendeetan arretaz zaindu di-renak: Sancti Spiritus unibertsitatea, San Migel parroikia, Bidaurreta mo-nastegia, landa-auzoetako ermitak eta parrokiak...; Barue, Kultur Etxea, Antixena, Don Pedruena, Sotomayor familiaren etxea... Ondare horreki-ko guztiarekiko (bereziki, Kalezaharrean), ikaragarritzko errespetu falta dago gure herrian, nagusituz joan diren pintaketekin, karteekin, pankar-ekin, pegatinekin... Ezin da ahaztu, gainera, Herrigune Historikoa Kultu-raondasun izendatuta dagoela, Monumentu Multzo kategorian. Errespetu beharreko ondarea da, jakina, baina Oñatin errespetuta dago?

EAJ-PNVren udal-taldeak behin baino gehiagotan erreparatu izan dio Oñatin dagoen pintaketa, kartel, pankarta eta pegatina gehiegikeriari. Eskatu izan du hormak, guneak... garbi edukitzeko saiakera egin dezala EH Bilduk gobernatzen duen Oñatiko udalak. Jaso dugun erantzuna hau-xe izan da: adierazpen-askatasuna, eta kezka eta ezinegon ezberdinen isla direla. Uste dugu gaur egun badauela baliabide egokiagoak horreta-rako, herria desitxuratuko ez luketenak.

Bestalde, herriak ez ezik etxeetako jabeek ere pairatu behar dute egoera horren ondorioa, etxeen balio estetikoaren galera baitakarte, bai pintaketek, bai horiek “zuzentzeko” harrizko hormekin zerikusirik ez daukan pinturarekin egindako konponketek. Azkenik, adierazi nahi dugu al-dian behin egiten diren garbiketa horietan joaten den euro bakoitza diru-xahuketa ere badela; hain zuzen, beste zerbeitetan ederki erabili ahal den dirua xahutzea.

EAJ-PNVren udal-taldeakideei uste dugu gutxienez, sentsibilizazio-kanpaina baten beharra dagoela Oñatin. Haratago ere joan zitekeen. Pintaketen, kartelen eta bestelako enpleguak identifikatzerik balego, egokia litzateke gaia haiekin eztabaidatzea eta konpontzea ere.”

PARTE HARTZEKO TXANDA

PARTE-HARTZAILEAK:

Elorza andrea.
Mugarza jauna.
Elorza andrea.
Erostarbe andrea.
Elorza andrea.

BOZKETA

Gaia aztertuta, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamazazpi bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. EAJ-PNV udal taldearen mozioa ez da onartu: aldeko botoak 6 (6 EAJ-PNV) eta aurkako botoak 11 (11 EH BILDU).

23.- EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: 2024ko martxoaren 8ko eguna dela eta.

Elorza eta Alonso andreek adierazpen instituzional hau irakurri dute:

“Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekariedade eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista mota ezberdinak.

Memoria historikoaren erreparazioak aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko. Adineko emakumeen esperientziak, borroka moldeak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa jasotzea beharrezkoa da ariketa hori egin ahal izateko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeke eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Oñatiko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- *Emakumeen memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko duten proiektuak garatu eta ikusgarritasuna ematea; Oñatiko udalaren Selma Huxley barkham ikerketa bekaren bitartez memoria historiko hori idazten jarraitzeko konpromisoa.*
- *Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten mugimendu feministak aintzatesten laguntzea, eta herriko genealogia feminista jasotzea.*
- *Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta harreman eta Partaidetza moduetan arreta berezia jarri eta Emakumeen etxearen eraketarako parte hartze prozesuan integratzea ikuspegi hori, adineko emakumeen parte hartzea, ikusgarritasuna, autonomia eta aktibismoa indartu asmoz.*
- *Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa-guneak babestea, ahalduz gero feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezten.*
- *Emakumeen ikusgarritasun soziala sustatzea ikuspegi intersektionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.*
- *Errenta baxuenak dituzten adineko emakumeei, bereziki alargunei, ahalduz gero ekonomiko bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.*
- *Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren detekziorako eta arreta hobetzeko bideak aztertu, eta gaiaren gaineko sentsibilizazio eta hausnarketa espazioak sustatzea.”*

24.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.

Ez daude.

25.- 2024ko urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 68 zenbakitik 274 zenbakira.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

26.- 2024ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (1., 2., 3., 4. eta 5. saioak).

Toki gobernuko batzordeen 1. (2024/01/18koa), 2. (2024/01/25koa), 3. (2024/02/01koa), 4. (2024/02/15koa) eta 5. (2024/02/22koa) saioen akten berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

27.- Galderak eta eskaerak.

Ez daude.

Besterik ezean, 19:15ak zirenean, alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau alkatearen ontzat emanarekin.

O.E
Alkateak

Idazkariak

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan